



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 1a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan, N-121-A errepideko tarte gatazkatsuenetan bide-segurtasuna hobetzekoak. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrius dezan tributuen arloko egungo foru-araudiko zuzeneko zergen onura fiskalen efizientzia. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, errefusatu egiten da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren edukia, eta Espainiako Gobernua premiatzen da lege hori indargabetzeko neurriak har ditzan. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariazko araudi bat gara dezan, energia berriztagarrietarako parke esperimental berriak paratzea ahalbidetuko duena. María Elena Llorente Trujillo andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 'Diru-sarrerak bermatzeko sisteman zergakenkarien eredua ezartzeko aukerari buruzko azterlana' abiaraz dezan. Mikel Buil García jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoaren garapena lehenets dezan, hezkuntza sozializatzailea eta kalitatezkoa bermatze aldera. Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioaren eskariari moratoria bat ezar diezaion, harik eta Ezkaba parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala onetsi arte. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetzea (8. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan, N-121-A errepideko tarte gatazkatsuenetan bide-segurtasuna hobetzekoak.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait neurri har ditzan, N-121-A errepideko tarte gatazkatsuenetan bide-segurtasuna hobetzekoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, N-121-A errepideko tarte arriskutsuenetan bide-segurtasuna hobetzeko neurriak hartzeko Nafarroako Gobernuak duen betebeharrari buruzkoa.

N-121-A errepidea izan daiteke, gaur egun, Nafarroako bide-sare osoko errepide arriskutsuenetako bat. Errepidearen istripu-tasa handia, zeinaren beste froga bat izan baitugu berriki emakume baten heriotzarekin, gatazka eta aldarrikapen ugari ekarri izan ditu, bai eskualdeko udalen aldetik, bai Nafarroako ipar-mendebaldeko bizilagunen aldetik.

Mozio honen helburua da Nafarroako Gobernua premiatzea entzungor jarrai ez dezan egoera

honen aurrean, eta bera premiatzea behar diren neurriak har ditzan errepide horrek utz diezaion hedabideetan egunero albiste penagarrien arrazoi izateari.

Nafarroako gizarte osoarentzat gauza jakina da N-121-A errepideko zenbait tuneletan ez direla Europako arauak betetzen, zeren eta larrialdiko irteerak falta baitituzte, eta toki batzuetan abiadura-mugen bat-bateko aldaketak baitaude. Hori guztia, kontuan hartuta trafiko oso handia duen errepidea dela, batez ere ibilgailu astunena. Osagai horiek guztiak direla eta, istripu ugari gertatzen dira bertan eta, horrenbestez, arrisku-egoen sorleku aipagarria da.

Joan den legegintzaldian inbertsio batzuk egin dira errepidearen prestazioak eta segurtasun-mailak hobetzeko, eta lanean jardun da egungo egoerari amaiera emanen dioten konponbide berrien bila.

Hala eta guztiz ere, egindako inbertsioak gora-behera, N-121-A errepideak istripu-tasa izugarri handia izaten jarraitzen du eta bertan oraindik ere tarte oso arriskutsuak daude; horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ezin du beste aldera begiratu eta eskatzen zaizkion neurriei ekiteko ezin du estakuru gisa erabili gobernu zentralik ez dagoela.

Egiazki, exekutibo zentrolean zuzendaritza politikorik ez egotea ez da negoziazioei ekiteko agertokirik onena, baina badirudi egungo Nafarroako Gobernuari ahaztu egin zaiola errepide horren erantzukizuna, Nafarroako bide-sare osoarena bezalaxe, berea dela, eta haren segurtasunaren gaineko erantzukizuna ere bai.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Zenbait neurri har ditzan, bide-sareko tarte gatazkatsuenetan bide-segurtasuna hobetzera bideratuak.

– Zehatz dezan noiz hasiko diren aurreikusita dituen egokitze-lanak.

Iruñean, 2019ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berri- dezan tributuen arloko egungo foru-araudiko zuzeneko zergen onura fiskalen efizientzia.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK, NAFARROAKO AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berri-
dezan tributuen arloko egungo foru-araudiko zuzeneko zergen onura fiskalen efizientzia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun talde parlamentariook, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuen arloko foru-araudiko zuzeneko zergen onura fiskalen efizientzia berri-
dezan.

Onura fiskalak zerga-politikako tresnak dira, helburu ekonomiko eta sozial zehatz batzuk bila-

tzen dituztenak salbuespen, kenkari edo hobari fiskalen bidez, hala pertsona fisikoen nola juridikoen errentan.

Hori dira, esate baterako, PFEZeko kenkariak etxebizitzaren alokairuan, etxebizitzaren alokairu-politika sustatzeko xedez, edo Gizarte Segurantzako kotizazioetako kenkariak, zaintzaileak kontratatzea sustatzeko xedez. Sozietateen gaineko zergen ere onura fiskal ugari balia daiteke, enpresagarapena bultzatzeko xedez; hori dira, besteak beste, berrinbertsioengatik salbuespenak, enplegua sortzeagatik kenkariak edo l+g+b-n inbertitzeagatik kenkariak.

Zerga-murrizketa horrek berekin dakar, beraz, tributuen bidezko diru-bilketa gutxitzea. Halatan, Nafarroan, 2018an 574 milioi eurokoa izan zen zergen onura fiskalen aurrekontu-exekuzioa; abian dugun urte honetarako aurrekontu-zenbatekoa, berriz, 559 milioi eurokoa da.

Ukaezina da onura fiskal horiek guztiek diru-bilketa inpaktu handia dutela foru erkidegoaren diru-kutxan eta, hortaz, beharrezkoa da jakitea zer eraginkortasun duten eskumena daukagun zergetan, helburuak modu eraginkorragoan lortuko dituen tributuen sistema bat taxutzeko. Alegia, onura fiskalak ebaluatu beharra dago, eta banan-banan aztertu egin behar ditugu, ikusteko ea duten helburua betetzen ari diren, zentzurik ote duten kostu/onura terminoetan, eta ea badagoen bide alternatibo eraginkorragorik eta efizienteagorik helburuak lortzeko. Ebaluazio horren emaitzak ahalbidetuko baitu justifikatzea ea kasuan kasuko pizgarria mantendu, kendu edo aldatu egin behar den.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun talde parlamentariook honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urteko txosten bat egin eta aurkez dezan, tributuen arloko foru-araudiko zuzene-

ko zergen onura fiskalen eraginkortasuna eta efizientzia aztertzeko.

Iruñean, 2019ko irailaren 25ean

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, errefusatu egiten da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren edukia, eta Espainiako Gobernua premiatzen da lege hori indargabetzeko neurriak har ditzan.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez errefusatu egiten baita Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren edukia, eta Espainiako Gobernua premiatzen baita lege hori indargabetzeko neurriak har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak nahitaez bete beharreko hiru erregela fiskal jasotzen ditu: aurrekontu egonkortasuna edo oreka, finantza jasangarritasuna edo zorpetze-muga eta gastu-araua.

Legeak besteak beste ezartzen duenez, administrazio publikoek aurrekontu orekako edo superabiteko posizioa mantendu beharko dute, eta superabit hori zorpetze-maila murriztera bideratuko da. Geroago, xedapen hori aldatu zen, zenbait baldintza betetzen zituzten administrazioei ahalbidetzeko superabitearen parte bat inbertsio finantzarioki jasangarrietara bideratu ahal izatea.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Legearen aplikazioa eta legearen garapenak dakartzen mugak aurreko eraso bat dira Nafarroako Foru Komunitatearen autonomiari eta eskumenei dagokienez.

Lege horrek izaera zeharo zentralizatzailea dauka, halako moduan non nabarmen murrizten eta mugatzen baitu herritarren zerbitzura dauden administrazioen funtzionamendua.

Krisiaren aitzakian, eragotzi egin da autonomia erkidegoetako eta tokiko gobernuek beren plantillak indartu ahal izatea desberdintasun gero eta handiagoi aurre egiteko, etxebizitza-larrialdiaren aurka borrokatzeko, modernizatze eta abar beharrezkoa den langile-kopuruarekin, eta bankuei ordaintzera bideratzen diren milioikako superabitek sortzera behartuta ikusi dute beren burua, prekarizazioak eta desberdintasunek gora egin bidenabar.

Beraz, muturreko austeritatearen ondoriozko birzentralizazio eta murrizketa sistematikoko politiken aitzinean, beharrezkoa da autonomia handiagoa eta araugintza-ahala ematea administrazioei; gure kasuan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari. Izan ere, administrazioek beharrezkoak dituzte baliabide horiek gizarte-kohesioa ziurtatzeko, produkzio-sarea zurkaizteko, langabezia murriztuko duen jarduera ekonomikoa sortzeko eta okerren pasatzen ari direnei laguntzeko.

Gauzak horrela, Nafarroako Parlamentuan lanean jarraitu behar dugu herriaren borondatez eta legez dagokigun autonomia aldezteko. Nafarroako Foru Komunitateak bere erakundeak administratzeko eta antolatzeke dauzkan eskumenak aldarrikatzea eta garatzea dira, hain zuzen ere, horren erakusgarri. Onartezina da Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legeak ahalmen hori kentzea eta Nafarroako foru eta toki administrazioei beren funtzionamendu egokia eta inbertsio-ahalmena eragozten duten ekonomia eta aurrekontu irizpideak inposatzea.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren edukia, zeina Madrileko Gobernuak 2012ko apirilaren 12an onetsi eta aplikatu baitzuen.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiaz har ditzan hartu beharreko neurriak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Legea ahalik eta epe laburrenean indargabetzeko.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiaz har ditzan hartu beharreko neurriak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Legea ahalik eta epe laburrenean indargabetzeko.

MARÍA ELENA LLORENTE TRUJILLO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Elena Llorente Trujillo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari premiaz har ditzan hartu beharreko neurriak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Legea ahalik eta epe laburrenean indargabetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Elena Llorente Trujillo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, trantsizio energetikoari buruzko honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

2020ko zerumuga hemen dugu jada, 2030ekoa gainera etorriko zaigu, eta dagoeneko badira 2050erako aurreikuspenak. Planak ez dira betetzen, betekizunak birformulatu eta desegiten dira, ahal duguna baino azkarrago egin nahi dugu aurrera. Politikariok exigitu eta legeak egin behar ditugu, aurrerabidea azkarra, jarraia eta egiazkoa izan dadin. Baina ezin dugu aurrera egin bulkada-eta oportunitate-kolpe kolpe, milaka milioi euroko erabakiak hartuz. Aurrerabidea ezin da izan esatea “dieselarenak egin du”, zeren eta baieztapen horrek kaosa eta ziurgabetasuna eragiten ditu Espainiako BPGaren % 10 egiten duen sektore batean. Planifikatu, egokitu eta lagundu beharra dago, aldaketa atzeraz ezin hori, erabateko iraultza hori, gure seme-alaben goitik beherako eraldaketa hori koherente bihurtu dadin.

Aro deskarbonizatu bateranzko aurrerabidea geldiezina izanen bada, energia-galera hori nola konpentsatu ulertu beharra dugu. Gutxiago gastatu, bai, baina hori ez da aski. Jakin behar dugu aurre egin ahal izanen diogun energia-eskari gero eta handiago honi eta energia % 100 berriztagarriaren bidez eman ahal izanen dugun energia hori. Nafarroan aitzindariak izan gara: beste inork baino lehenago ekoizten genituen herri honetan energia berriztagarriak; esate baterako, munduan erreferentean den energia eoliko espainiarrak gure erkidegoan dauka bere basea. Gaur egun,

gure parkeak, aitzindari direnez, beren amortizazio-adina gainditzen ari dira, eta zaharkitzera hurbiltzen. Horiek birpotentziatzea betebehar saihestezina da Administrazioarentzat eta enpresentzat. Gainera, ez du zentzurik Nafarroan parke esperimentalik garatu ezin izan eta hemendik kanpo egin behar izateak. Energia fosil guztia berriztagarriarekin ordeztzeko behar den potentzia guztia lortzeko beharrezkoa da guztion konprometitzea I+G+b-ko planekin, agertoki egoki bat sortuko dutenak ordezkatzeko hori ahalbidetuko duten ekipoak eta teknologia edukitzeko.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Albait lasterren berriazko araudi bat gara dezan, energia berriztagarrietarako parke esperimental berriak paratzea ahalbidetuko duena.

2. Sustatzaileei lagun diezaien jardunean hogeita bost urte baino gehiago daramaten parke guztien egoera berrikusten eta aztertzen eta parke horiek birpotentziatzeko lanak bultzatzea.

3. I+G+b-rako laguntza eskusiboen deialdia egin dezan energia berriztagarriko sistemen efizientzia hobetzera bideratutako proiektuen berrikuntza ahalbidetzeko.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Elena Lorente Trujillo

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ‘Diru-sarrerak bermatzeko sisteman zerga-kenkarien eredia ezartzeko aukerari buruzko azterlana’ abiaraz dezan.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ‘Diru-sarrerak bermatzeko sisteman zerga-kenkarien eredia ezartzeko aukerari buruzko azterlana’ abiaraz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkez-

ten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroa ezin da gelditu 4.0 industriak eta industria-sarearen robotizazio progresioak gure erkidegoan planteatzen dituzten aldaketa sozial itzelez kanpo. Ageriko industria-birmoldaketa hori oso eragin handia izaten ari da, eta izanen du, enpleguari begira; hori dela-eta, uste dugu ezinbestekoa dela, besteak beste, gizarte prestazioen sistemari buruzko hausnarketa egitea gure erkidegoan.

Horrenbestez, gure talde parlamentarioak uste du beharrezkoa dela hainbat neurri bultzatzea, errenta bermatua bezalako prestazioak izapidetzeko burokrasia murrizteko eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan baliagarri dauden giza baliabideak optimizatzeko, baliabide horiek lagun egitea sozialera bideratuz.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du azter dezan ea diru-sarreraren bermerako sisteman kenkari fiskalen eredia ezartzeko aukerarik dagoen, egungo erronken arabera prestazio eredu baterantz aurrera egiteko xedez.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntza publikoaren garapena lehenets dezan, hezkuntza sozializatzailea eta kalitatezkoa bermatze aldera.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita irakaskuntza publikoaren garapena lehenets dezan, hezkuntza sozializatzailea eta kalitatezkoa bermatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoko eledun Mari-sa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

PSNk, Geroa Baik, Podemos-Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrak legegintzaldirako sinatutako gobernu-programak irakaskuntza publikoa garatzeko konpromiso argia jasotzen du, Nafarroako hezkuntza sistemaren ardatza den aldetik, eta ikastetxe publikoei aitortzen die gizartearen erronkei eta herritarren hezkuntza-beharrizanei erantzuteko ahalmena dutela.

Orobat jasotzen du gure apustua eta konpromisoa argiak direla familiek beren seme-alabak etxetik gertuen dagoen ikastetxe publikoan –nork bere auzoan edo herrian– eskolatu ahal izateko eskubideari dagokionez.

Halatan, 2019-2023 programa-akordioak –bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako– honako hau dio “3.1 Ezagutza, hezkuntza eta aukera-berdintasuna” atalean:

6. Eskola publikoa lehenetsi hezkuntza-sistemaren bizkarrezur gisa; haren ikastetxe-sarea aski izan dadila auzo eta eskualde bakoitzaren beharrizanei erantzuteko. Hezkuntza-eskaintza publikoa eta eskola-unitate publikoen kopurua handitu. Nork bere auzoan ikasteko aukera izatea ahalbidetu.

13. Eskolaratze-araudia aldatu, ikasleak hezkuntza publikoan eta beren inguru familiar eta sozialetik ahalik eta gertuen eskolaratzeko, Hau da, beren bizi-eremuetatik gertu.

14. Langile-taldeen planifikazioa, ikastetxe publikoetan behin ikasturtea hasita sartzen diren ikasleei eta eskola-ordutegian PILE (atzerritarren hizkuntza murgiltze programa) aplikatzeari dago-kienez.

Irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko 2018-2022 urteetarako itunak ezartzen duenez, berriz, “matrikula arrunteko eta bereziko prozedura orokorrean zehar automatikoak izanen dira bikoizketak”.

Eultzako ikastetxe publikoan, matrikulazioko prozedura arruntean, bi eskola-unitate aurreikus-ten ziren irakaskuntzako maila guztietan, salbu eta 6. mailan.

Prozedura arrunta eta berezia bukatu zenean, Hezkuntza Departamentuak 3 urteko eskola-unitate bat kentzea erabaki zuen.

Halere, ikastetxe horrek 27 matrikula izan zituen epe berezian; horietako bat hezkuntza premia bereziko ikaslea da, eta horren ebaluazioa egiten ari dira. 28 eskabide dira, beraz: ezarritako ratioa baino 3 gehiago.

Izquierda-Ezkerraren ustez, ikastetxe horretako bi eskola-unitateak –eta egoera berean lego-keen beste edozeinetakoak– mantendu behar dira.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du irakaskuntza publikoaren garapena lehenets dezan eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen hazkundea babestu dezan, guztiei hezkuntza sozializatzailea eta kalitatezkoa bermatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du ez dezan eskola-unitaterik ken ikastetxe publikoetan, baldin eta eskaria behar adinakoa bada.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen

du eskola-postu bat berma diezaien ikastetxe publiko batean ikaspostu bat eskatzen duten ikasle guztiei.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioaren eskariari moratoria bat ezar diezaión, harik eta Ezkaba parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala onetsi arte.

LURRALDE ANTOLAMENDUKO, ETXEBIZITZAKO, PAISAIAKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKO-ETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetu dadin Izquierda-Ezkerra Talde Mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Defentsa Ministerioaren eskariari moratoria bat

ezar diezaión, harik eta Ezkaba parkearen Udalez gaindiko Plan Sektoriala onetsi arte. Mozioa 2019ko irailaren 13ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias